

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRAIA-MAEZTUKO UDALA

Behin betiko onartzea nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiak sustatzeko eta garatzeko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza

Jendaurreko aldian inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez Arraia-Maeztuko nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiak sustatzeko eta garatzeko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza onartzen zuen hasierako erabakiaren kontra, erabaki hori behin betiko bihurtzen da eta beraren testu osoa argitaratzen da, herritar guztiak jakinaren gainean egon daitezen eta apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 70.2 artikuluan xedatzen duena betetzeko.

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete pasatu baino lehen, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioarenak, 46. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritik. Gainera, bidezkotzat jotzen diren gainerako errekurtsu guztiak ere aurkeztu ahal izango dira.

Arraia-Maeztuko nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiak sustatzeko eta garatzeko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza

Ordenantza hau garatzeko erabili diren ahalmenak xedapen hauetan ematen zaizkio Udalari: apirilaren 2ko 7/1985 Legea, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 25. artikulua; apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko toki erakundeei buruzkoa, 17. artikulua eta horrekin bat datozenak. Izan ere, artikulua horietan ezartzen da udalek beren eskumeneko eremuan mota guztietako jarduerak sustatu ditzaketela beren interesak kudeatzeko, eta bizilagunen beharrak eta nahiak asetzen laguntzen duten zerbitzu publikoak eskaini ditzaketela; udalen eskumenekoa da udalerrien ekonomia eta gizartea garatzea. Gainera, ordenantza garatzeko honako hauek ere errespetatu dira: azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena; horren arautegia, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartzen duena; toki erakundeen zerbitzuen arautegiko 23. artikulua eta hurrengoak, dirulaguntzak eta laguntzak emateko baldintzak eta prozedura ezartzen dituztenak.

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Ordenantza honen xedea da Arraia-Maeztuko udalerrian nekazaritza eta abeltzaintza sektorea sustatzeko eta garatzeko dirulaguntzak emateko irizpideak eta prozedura egituratzea eta finkatzea, kontuan hartuz herritar guztiek laguntza horiek jasotzeko aukera berak eduki behar ditzutela.

2. artikulua

Udalbatzak Udalaren kontura ematen duen eta ekonomikoki balioztatu daitekeen zuzeneko zein zeharkako edozein laguntza izango da dirulaguntza.

3. artikulua

Dirulaguntzak emateko honako arau hauek hartuko dira kontuan:

1. Borondatezkoak eta aldi baterakoak izango dira, ordenantza honetan besterik xedatzen den kasuetan izan ezik.
2. Ezin izango dira arrazoitzat hartu aurrekari gisa.
3. Zenbatekoa ezin da izan, inolaz ere, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren oinarriaren ehuneko 3 baino gehiago.
4. Ezin izango da eskatu dirulaguntza handitzeko ez berrikusteko.
5. Obraren aurrekontua 1.803,00 eurotik gorakoa izan behar da.

4. artikulua

Dirulaguntzak liberalitate hutsez ematen dituzten erabakiak deusezak izango dira.

II. Eskatzaileen baldintzak

5. artikulua

Honako hauek eska dezakete dirulaguntza:

a) Nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiategi baten titular diren pertsona fisikoek zein juridikoek.

Eskatzailea pertsona fisikoa bada, gutxienez nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiategiaren titularretako bat udalerrri honetan erroldatuta egon behar da, eta bertan eduki behar du ohiko bizileku iraunkorra gutxienez eskaera aurkeztu baino bi urte lehenagotik jarraian.

Eskatzailea pertsona juridikoa edo pertsona fisiko edo juridikoen taldea bada, egoitza udalerrian eduki behar du aurreko antzintasun berarekin.

b) Arraia-Maeztuko udalerrian nekazaritza edo abeltzaintza izan behar da jarduera nagusia. Norberaren konturako nekazarien gizarte segurantzako edo nekazaritzan diharduten autonomoen erregimeneko alta aurkeztu behar da hori frogatzeko. Egoera hori laguntzaren eskaera aurkezten den momentuan eta laguntza ematen den momentuan frogatu beharko da. Gainera, aurkeztutako azkeneko errenta aitortpenaz Foru Ogasunak egindako ziurtagiria aurkeztu beharko da, adierazten duena eskatzailearen ohiko diru sarreraren ehuneko 50 baino gehiago nekazaritzako edo abeltzaintzako jardueraren ustiapenetik datorrela.

c) Nekazaritzako ustiategien eta modu ofizialean ezarritako jardueren erregistroan inskribaturik egon beharko da, eta bereziki nekazaritzako familia ustiategien erregistroan, erakunde publiko eskudunek zehaztutako inguruabarren arabera.

Dirulaguntzak emateari dagokionez, nekazaritza edo abeltzaintzako ustiategia honela definituko da: titularrak, nekazaritzan ari dela, enpresa moduan antolatutako ondasun eta eskubideen multzoa, funtsean merkatuko xedeak dituen, eta berez unitate tekniko-ekonomikoa osatzen duena.

Honako hauek ez dira nekazaritzako ustiategitzat joko:

– Nekazaritzako enpresa osagarriak, lurrik eduki gabe ere nekazaritzako produkzioan laguntzen dutenak nekazaritzako makinak lagata, edozein izanda ere kontratuaren mota, edota nekazaritzako ustiategietako erabili ohi diren zerbitzuetako beste edozein eskainiz.

– Zaldiketarako edo lasterketarako zaldien ustiategiak, zaldien hazkuntzan dihardutenak izan ezik.

– Lorrerako edo lanerako abereen ustiategiak, hazkuntzan dihardutenak izan ezik.

– Txakurtegiak, animalia dendak, hiltegiak eta antzekoak.

– Lagun egiteko animalien haztegiak.

– Piszifaktoretako jarduerak.

d) Eskatzailea nekazaritza edo abeltzaintzako ustiategi baten titular gisa lehen aldiz ari den 40 urtetik beherako pertsona bada eta ezin badu frogatu ustiategiak sortzen duela bere diru sarreraren ehuneko 50 baino gehiago Ogasunaren azken errenta aitorenaren ziurtagiri baten bidez, horren ordezkari nekazaritza edo abeltzaintza gutxienez bi urtez jardun duela frogatu beharko du.

e) Eskatzaileek ezin izango dute zorrik eduki herri administrazioetan, antzeko erakundeetan eta dagozkien aprobetxamenduak arautzen dituztenetan; hau da, zerga betebeharrak, kanonak eta kuotak ordainduta eduki behar dituzte; bestela, ezin izango dute diru laguntzarik jaso.

f) Dirulaguntza edo laguntza nekazariaren edo abeltzaintzaren ohiko etxebizitza eraikitzeo erabiltzen denean, honako hau frogatu beharko du onuradunak:

– Ez daukala etxebizitza moduan erabiltzen den beste higiezinik.

– Dirulaguntzaren xede den etxebizitza 15 urtean ohiko etxebizitza izateko eta inori ez besterentzeko konpromisoa hartu beharko da.

Baldintza horiek guztiak bete ezean, emandako dirulaguntza itzuli beharko da.

III. Dirulaguntzarako onartzen diren jarduerak

6. artikulua

Dirulaguntzarako onartzen dira nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategietan hobekuntzak eta eraikin berria egiteko obrak, udalerrian bertan eginez gero, bai eta nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiategiaren titularren ohiko etxebizitza, ustiategiari lotua, eraikitzea ere.

7. artikulua

Dirulaguntzarako onartzen ez direnak:

- a) Udalerraren lurralde esparrutik kanpo egiten diren jarduerak.
- b) Funtzionamendu gastuak (alokairua, telefonoa, argia, eta abar).
- c) Ondasun higigarriak eta higiezinak erostea.
- d) Instalazioak erostea.

IV. Eskaeraren prozedura

8. artikulua

Dirulaguntzaren xede diren jarduketeki erantzuteko, Arraia-Maeztuko Udalak zenbateko jakin bat kontsignatuko du aurrekontuetan urtero, horretarako dauzkan baliabideen arabera.

9. artikulua

5. artikuluan aipatzen den dirulaguntza jaso nahi dutenek I. eranskineko eskaera aurkeztu beharko dute, eta horrekin batera honako agiri hauek ere bai:

a) Banakako eskaera, dirulaguntza zer obratarako eta zer jarduerarako eskatzen den zehazten duena.

b) Obra proiektua eta egin beharreko lanen aurrekontu banakatua, obretarako udal lizentzia lortzeko behar denaren arabera.

c) Errolda agiria eta gutxienez bi urtean udalerrira ohiko bizilekua izan dela frogatzen duen agiria. Pertsona juridikoa izanez gero, egoitza udalerrian dagoela frogatzen duen agiria.

d) Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategien erregistroaren ziurtagiria eta Gizarte Segurantzarena (5. artikuluan aipatzen dira).

e) Foru Ogasunaren ziurtagiria, diru sarrera arrunten ehuneko 50 baino gehiago nekazaritza edo abeltzaintzako jardueratik sortzen dela dioena.

f) Dirulaguntzaren xedea lehen etxebizitza eraikitzea bada, eskatzailea etxebizitza moduan erabiltzen den beste higiezin baten jabe ez dela frogatzen duen agiria.

10. artikulua

Eskaerak, eta aurreko artikuluetan aipatzen diren agiriak, obra lizentziaren eskaerarekin batera aurkez daitezke edo, ezinbestean, lizentzia ematen duen ebazpena jakinarazten denetik sei hilabete pasatu baino lehen, baldin eta obrak amaitu gabe badaude.

V. Dirulaguntzak emateko irizpideak

11. artikulua

1. Egutegiko urtea amaitutakoan, ekitaldian zehar garaiz eta behar bezala aurkeztutako eskaera guztiak aztertuko ditu Hirigintzako Batzorde Informatiboak. Batzordeak egiaztatuko du zenbatek betetzen dituzten ordenantza honetan arautzen diren dirulaguntzak jasotzeko betekizunak; gero Kontu-hartzailetzak baliagarri dauden kreditu funtsei buruzko txostena egingo du aurrekontuko partida kontuan hartuz eta udal teknikariak obrak hirigintzako araudiarekin bat datozen eta obra lizentziaren baldintzak betetzen dituzten aztertuko du beste txosten batean, eta ondoren ebazpen proposamena egingo da.

2. Kalkulu egokiak egin ondoren egiaztatzen bada aurrekontuko kontsignazioaren arabera dirulaguntza eman dakiekeela ordenantzan ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztiei (gehenez ere eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren oinarriaren ehuneko 3), Hirigintza batzordeak proposatuko du dirulaguntza ematea baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiei.

3. Ebazteko eskumena Udalbatzak dauka.

12. artikulua

1. Baldin eta, aurreko artikuluan aipatzen diren txostenak aztertu ondoren, Hirigintza Batzordeak egiaztatzen badu ez dagoela kreditu nahikorik baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiei dirulaguntza emateko (aurrean azaldu den zenbatekoa), honako irizpide objektibo hauek aplikatuko dira dirulaguntza onuradunak hautatzeko:

a) Nekazaritza eta abeltzaintzako jardueraren interes ekonomiko eta soziala, eta enplegua sortzeko gaitasuna: 5 puntu gehenez.

Nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiatzean zenbat pertsona ari diren lanean ohiko jardunean (titularrak zein langileak).

b) Jardueraren nekazaritza-abeltzaintzako interesa: 5 puntu gehenez.

Mantentzen zail diren nekazaritzako ustiatzei laguntzea baloratuko da.

2. Dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituzten eskaera guztien puntuazioak finkatutakoan dirulaguntzak (eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren oinarriaren ehuneko 3) puntuazioaren arabera hurrenkeran emango dira, harik eta baliagarri dagoen diru kopurua amaitu arte.

3. Baldin eta aurreko idatz zatiko irizpide objektiboen arabera balorazioaren ondorioz bi eskaerak edo gehiagok puntu berak badituzte eta ez badago kreditu nahikorik denei emateko eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren oinarriaren ehuneko 3ko dirulaguntza, ehuneko hori modu proportzionalen murriztuko da, hau da, bakoitzari berak gauzatutako aurrekontuaren proportzioa aplikatuz.

VI. Onuradunen betebeharrak

13. artikulua

1. Dirulaguntza jasotzen duten jarduerak amaituta eduki beharko dira hirigintzako lizentzian obrak amaitzeko ezarritako epealdia amaitu aurretik edo, bestela, Udalaren berariazko ebazpen baten bidez emandako luzapena amaitu baino lehen.

2. Obrak amaitutakoan dirulaguntza ordaintzeko eskaera aurkeztu ahal izango da (eredua II., III. eta IV. eranskinetan).

14. artikulua

Dirulaguntza eman ondoren baldintza hauek bete beharko dira: egiten diren obrak bat etorri behar dira udalerriko hirigintzako legeriarekin; jarduera legeztatzea (jarduera lizentzia edo aurretiazko komunikazioa eskuratzea, eta behar denean irekitzeko lizentzia ere bai, ingurumen arloko legerian arautzen den prozeduraren arabera).

15. artikulua

Ematen diren dirulaguntzen helburua ezin izango da aldatu.

16. artikulua

Jarduera baterako dirulaguntza eskatze hutsak ordenantza hau eta dirulaguntzak emateko prozedura arautzen duten oinarriak ezagutzea eta onartzea dakar berekin.

17. artikulua

1. Dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabarretan aldaketaren bat gertatzen bada eta, nolana ere, beste administrazio edo erakunde publiko edo entitate pribatu batek emandako dirulaguntzaren edo laguntzaren bat, aurretik aipatu ez dena, jasotzen bada xede bererako, dirulaguntza ematen duen ebazpena aldatu ahal izango da.

2. Ordenantza honetan ezartzen diren baldintza edo betebeharrak bat ez betetzeak Udalak emandako dirulaguntza deuseztatzea ekar lezake (osorik edo zati bat), eta behar den kasuetan kopuru jakin bat itzuli behar izatea eta dirulaguntza ordaindu denetik sortutako berandutze interesak ordaindu behar izatea ere bai. Horrelakorik gertatuz gero, ebazpen eman aurretik kontraesaneko espedientea izapidetuko da indarreko dirulaguntzen arautegiarekin bat etorritik.

3. Onuradunek indarreko dirulaguntzen arautegian ezartzen diren betebeharrak edukiko dituzte. Gainera, Arraia-Maeztuko Udalarik laguntza eman beharko diote dirulaguntzaren xede diren jarduera eta obra ondo egiten diren egiaztatzeko egin behar dituen egiaztapen eta kontrol jarduketak guztiak egiteko; horren ildotik, Udalak eskatzen dituen agiri guztiak aurkeztu beharko dituzte.

VII. Justifikazioa eta kobrantza

18. artikulua

Ordenantza honen xedapenen arabera emandako dirulaguntzak jasotzeko ezinbestekoa da dirulaguntzaren xede den jarduera egitea eta honako agiri hauek aurkeztea udaletxean:

a) Dirulaguntza ordaintzeko eskaera. Alkateari bidaliko zaio, eta transferentzia zer kontu korrontetan egin behar den adieraziko da.

b) Obra proiektua aurkeztea lizentzia lortzeko beharrezkoa izan denean, obraren azken egiaztapena eta jardueraren espedientean finkatzen diren neurri zuzentzaileak (halakorik badago) aurkeztu beharko dira.

c) Obrak proiekturik behar ez badu, fakturak aurkeztu beharko dira, banakatuta.

19. artikulua

Aurreko artikuluan aipatzen diren fakturek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Jatorrizkoak izan behar dira edo idazkariak konpultsatutako fotokopiak.

b) Udalaren lizentzian (edo luzapenaren ebazpenean) obrak egiteko ezarritako epealdiaren barruan eginak izan behar dira.

c) Jasotzailearen nortasun agiri nazionalaren zenbakia edo identifikazio fiskaleko zenbakia eduki behar dute.

d) Enpresa hornitzailearen zigilua eta sinadura eduki behar dituzte.

e) Eskaera egitean aurkeztutako aurrekontuarekin bat etorri behar dira.

20. artikulua

Obra edo jarduera egin eta handik hogeita hamar egun igaro aurretik aurkeztu behar da 18. artikuluan aipatu den dokumentazio justifikagarria, eta onarpena eta ordainketa egitea alkateari egokituko zaio. Alkateak dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu dezake, gastuak hasieran kalkulaturakoak baino gutxiago badira.

Azken xedapena

Ordenantza honek 20 artikulua eta azken xedapen bat dauzka. Behin betiko onartu eta testu osoa ALHAOn argitaratu ondoren jarriko da indarrean, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan ezartzen duen epealdia igarotakoan.

I. ERANSKINA**DIRULAGUNTZA ESKAERA**

Nik, (e) k (NAN:.....; egoitza:),
(behar den kasuetan:(e) n izenean eta ordezkartzan
(NAN/IFK:; egoitza:), hauxe

ADIERAZTEN DUT

1. Arraia-Maeztuko nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiak sustatzeko eta garatzeko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzan ezartzen den laguntza eskatu nahi dut honako obra/jarduera honetarako:

- Proiektuaren azalpena.
- Proiektuaren aurrekontua.

2. Ez daukat debekatuta (behar den kasuetan: Ordezkatzen duen entitateak ez dauka debekatuta) dirulaguntza publikoen onuradun izatea, Dirulaguntzen Lege Orokorrak 13. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

3. Egunean dauzkat (behar den kasuetan: Ordezkatzen duen entitateak egunean dauzka) dirulaguntzen itzulketen betebeharrak, zergen arloko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak.

Baimena ematen diot Arraia-Maeztuko Udalari zergen arloko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dauzkadala frogatzen duten ziurtagiriak eskatzeko.

4. Xede bererako eskatutako edo lortutako beste dirulaguntza eta laguntza batzuei buruzko erantzukizunpeko adierazpena egin dut eskaeraren eranskin batean (behar izanez gero).

5. Ordenantzan eskatzen diren agiri hauek erantsi dizkiot eskaerari:

- Eskatzaileen NAN edo IKZen kopiak.
- Nekazaritza edo abeltzaintzako ustiategiaren titulartasunaren eta bertako langileen kopuruaren frogagiria (langileetatik zenbat diren jabeak zehazten da).
- Eskatzaileen errolda ziurtagiriak (edo pertsona juridikoen egoitza ziurtagiriak).
- Norberaren konturako nekazarien gizarte segurantzako edo nekazaritzan diharduten autonomoen erregimeneko alta frogatzen duen ziurtagiria.
- Nekazaritzako ustiategien erregistroetako inskripzio ziurtagiriak.
- Ogasunaren azken errenta aitopenen ziurtagiria, frogatzen duena eskatzailearen diru sarreren ehuneko 50 baino gehiago ustiategiko jardueraren bidez lortzen direla, edo bestela, eskatzailea nekazaritza edo abeltzaintzako ustiategi baten titular gisa lehen aldiz ari den 40 urtetik beherako pertsona bada, nekazaritzan edo abeltzaintzan gutxienez bi urtez jardun duela frogatzen duen agiria.
- Ordenantza honetan eskaerak baloratzeko ezartzen diren irizpide objektiboen inguruko frogagiriak.

6. Konpromisoa hartzen dut Udalari jakinarazteko dirulaguntza emateko kontuan hartzen diren inguruabarretan gertatzen diren aldaketa guztiak.

ESKATZEN DUT eskaera hau onartzeko, bidezko izapideak egin ondoren, eta horren arabera dirulaguntza egokia emateko.

....., 201....(e) koaren(a)

Sinadura

II. ERANSKINA

DIRULAGUNTZA ORDAINTZEKO ESKAERA

Nik,(e) k (NAN:; egoitza:, (behar den kasuetan:(e) n izenean eta ordezkartzan (NAN/IFK:; egoitza:), hauxe

ESKATZEN DUT

Arraia-Maeztuko Udalak(e) ko ebazpen baten bidez emandakoeuroko dirulaguntza ordaintzeko (III. eta IV. eranskinak behar bezala bete ditut horretarako)
..... banku entitatearen honako kontu honetan:

Kontuaren zenbakia:

....., 201....(e) koaren(a)

Sinadura

III. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Nik,(e) k (NAN:; egoitza:, (behar den kasuetan:(e) n izenean eta ordezkartzan (NAN/IFK:; egoitza:), Arraia-Maeztuko Udalak(e) ko ebazpenaren bidez emandako dirulaguntzaren justifikazioa dela eta, hauxe adierazten dut neure erantzukizunpean:

1. Dirulaguntzaren xede izan den proiektua osorik egin da.

2. Egindako proiektuaren sarreraren eta gastuen (eta, behar den kasuetan, beste erakunde batzuek emandako gainerako dirulaguntzen zenbatekoaren) likidazioak erakusten du ez dela gairitu egindako gastuen zenbatekoa eta ekarpen ekonomiko guztiak dirulaguntzaren xede izan den proiektua egiteko erabili direla.

Adierazpen hau sinatzen dut Arraia-Maeztuko Udalak emandako dirulaguntzaren justifikazio gisa, udal hori jakinaren gainean gera dadin.

....., 201....(e) koaren(a)

Sinadura

IV. ERANSKINA**JUSTIFIKAZIO KONTUA**

Nik,(e) k (NAN:; egoitza:, (behar den kasuetan:(e) n izenean eta ordezkartzan (NAN/IFK:; egoitza:), Arraia-Maeztuko Udalak(e) ko ebazpenaren bidez emandako dirulaguntza jaso dut, eurokoa; hauxe adierazten dut neure erantzukizunpean:

1. projektua egin da; obra(e)(a) n amaitu da.
2. Obren azken ziurtagiria erantsi da (edo fakturen zerrenda, fotokopia konpultsatuekin).

| ZENBAKIA | HARTZEKODUNAK | KONTZEPTUA | AGIRIAREN ZENBAKIA | DATA | ZENBATEKOA |
|----------|---------------|------------|--------------------|------|------------|
| 1 | | | | | |
| 2 | | | | | |
| 3 | | | | | |
| 4 | | | | | |

Guztira:

3. Dirulaguntza lortzeko aurkeztutako aurrekontuan gertatu diren aldaketak (aldaketarik egon ez gero).

| PROIEKTU TEKNIKOAREN AURREKONTUAN AURREIKUSITAKO GASTUAK | BENETAN EGINDAKO GASTUAK |
|--|--------------------------|
| | |

....., 201....(e) koaren(a)

Sinadura

Maeztu, 2018ko uztailaren 4a

Alkate-lehendakaria

ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA